

## GOBERNU BATZARRA

2016. 07. 11

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko uztailaren hamaikan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar</b>	<b>1.- Aurreko akta onartzea.</b>  <b>2.-Bikarte (errusiar eta bielorrusiar umeen harrerarako elkarte).</b>
<b>Idazkaria:</b>	<b>3.-Elkarteen Udal Erregistroan izena emateko eskaera.</b>
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	<b>4.-Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko obren 3. ziurtagiria (92 faktura).</b>
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	<b>5.-Kondeaneko Aldapa 11n babes ofizialeko 11 etxebizitza eraikitze obraren esleipena./ Adjudicación de las obras de Construcción de 11 viviendas de protección oficial en Kondeaneko Aldapa 11.</b>  <b>6.-22/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.</b>

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko uztailaren 4an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Bikarte (errusiar eta bielorrusiar umeen harrerarako elkarte).**

Bikarte elkarteak dirulaguntza eskaera egin du, Errusiar eta Bielorrusiar irradiazio nuklearra jasan duten umezurtz edo/ta desegituraturiko familietatik datozen haurren aldi baterako egonaldiaren kanpaina aurrera eramateko. Ume horietako bat Tolosako familia batean jasota dago ekainaren 19tik irailaren 3ra arte.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egin duen txostenaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Bikarte Elkarteari 883,75 €-ko dirulaguntza ematea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Bikarte elkarteari.

### **3.- Elkartearen Udal Erregistroan izena emateko eskaera.**

“ASOCIACION DE INMIGRANTES BOOLOO SENEGAL” elkarteak Tolosako herriaren onerako irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan izena emateko eskaera egin du.

Ikusita, elkarte honek betetzen dituela ezarrita dauden baldintza guztiak, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politikako batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- “ASOCIACION DE INMIGRANTES BOOLOO SENEGAL” elkarteak egin duen eskaera onartzea eta irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroan sartzea.

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta “ASOCIACION DE INMIGRANTES BOOLOO SENEGAL” elkarteari.

### **4.- Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko obren 3. ziuertagiria (92 faktura).**

Tolosako Udalak Construcciones Cubiertas Pagola, SL, enpresari esleitu zion Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko proiektuko obren kontratua; 166.213,56€koa (BEZa barne) izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziuertagiriak honako hauek dira:

<b>Ziurgagiri zenbakia.....</b>	<b>Faktura zenbakia.....</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>1. ziuertagiria.....</b>	<b>64 .....</b>	<b>19.349,85€</b>
<b>2. ziuertagiria.....</b>	<b>77 .....</b>	<b>108.492,81€</b>
<b>GUZTIRA.....</b>		<b>127.842,66€</b>

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obraren bigarrena, honakoa da:

**Ziurgagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa**  
**3. ziurtagiria..... 92 ..... 54.963,27€**

Likidazioko zenbakietan gehiago sakonduta, honako atalak egin genezazke:

* Eraikin nagusia.....	161.018,00€
* Elkartea dagoen eraikina.....	9.051,55€
* Arkupea.....	12.022,47€
* Zorrotenak.....	713,91€
<b>* GUZTIRA,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,,</b>	<b>182.805,93€</b>

Ikus daitekeenez, adjudikazioarekiko hazkunde bat izan da likidazioako azken kopuruan, %9,98takoa hain zuzen ere.

Hazkunderen arrazoi bakarra da aurreikusita zegoena baino azalera handiagoan aldatu dela teilatua. Proiektuan jasota zegoen azalerara mugatuz gero obra, adjudikaziotik behera itxiko zen kontratua.

Ziurtagiri hau azterturik, Gobernu Batzar honmek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko proiektuko obren likidazioa onartzea, 182.805,93€ (BEZ barne) delarik zenbatekoa.

**BIGARRENA.**- Onartzea Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko proiektuko obren 3. ziurtagiria (92 zk. duen faktura); 54.963,27€ (BEZ barne).

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Cubiertas Pagola, SL, enpresari eta Kontuhartzaitzari.

**5.-Kondeaneko Aldapa 11n babes ofizialeko 11 etxebizitza eraikitze obraren esleipena./ Adjudicación de las obras de Construcción de 11 viviendas de protección oficial en Kondeaneko Aldapa 11.**

2016ko maiatzaren 9an egindako Gobernu Batzarrean onartu zen Tolosako "Kondeaneko Aldapa 11n babes ofizialeko 11 etxebizitza eraikitze obrak kontratatze espedientea.

Izapideak egin ondoren, lizitazio iragarkia GAO n eta kontratatuzailearen profileen argitaratu zen, interesatuak proposamenak aurkez zitzaten:

Lizitazio epean honako hauek aurkeztu dira:

- \* Construcciones Hugar, S.L.
- \* Altuna y Uria, S.A.
- \* Lurgoien, S.A.
- \* UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.- Construcciones-Egaralur, S.L..
- \* Construcciones Artzamendi, S.A.

2016ko ekainaren 30ean, Kontratazio Mahaiak proposatu du Artzamendi, S.A., k aurkeztutako proposamena ez onartzea epez kanpo aurkeztu duelako.

Aldi berean, ekainaren 29an egindako txosten teknikoaren arabera, honako hau proposatu zuen kontratazio mahaiak: obrak "UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.-Construcciones-Egaralur, S.L.," enpresei adjudikatzea.

Horretan oinarrituta, 2016ko ekainaren 30eko 1272 dekretuaren bidez UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.- Construcciones-Egaralur, S.L. enpresari errekeritu zitzaion zenbait dokumentu aurkezteko.

La Junta de Gobierno, el 9 de mayo de 2016, aprobó el expediente para la contratación de las obras de "Construcción de 11 viviendas de protección oficial en Kondeaneko Aldapa 11" de Tolosa.

Tramitado el correspondiente expediente de contratación mediante procedimiento abierto, se publicó el anuncio en el BOG y en el perfil de contratante, a fin de que los interesados presentaran sus propuestas.

Durante la licitación se han presentado los siguientes licitadores:

- \* Construcciones Hugar, S.L.
- \* Altuna y Uria, S.A..
- \* Lurgoien, S.A.
- \* UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.- Construcciones-Egaralur, S.L..
- \* Construcciones Artzamendi, S.A.

En fecha 30 de junio de 2016, la Mesa de Contratación propuso excluir la propuesta presentada por Artzamendi, S.A., por haber sido presentada fuera de plazo.

Asimismo, de conformidad con el informe técnico emitido el 29 de junio de 2016, la Mesa de Contratación realizó la propuesta de adjudicar las obras a las empresas "UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.-Construcciones-Egaralur, S.L."

En base a ello, mediante decreto n.º 1272, de fecha 30 de junio de 2016, se requiere a la empresa "UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.- Construcciones-Egaralur, S.L." la presentación de determinada documentación.

Uztailaren 7an aurkeztu zuen eskatutako dokumentazioa.

Horregatik guztiagatik, eta kontutan harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### ERABAKI DU

**LEHENA.-** Ez onartzea adjudikazio prozeduran Construcciones Artzamendi, S.L., enpresak aurkeztutako eskaintza, epez kanpo aurkeztu zuenez.

**BIGARRENA.-** Lizitazio egintza baliokotzat jotzea eta UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L., Construcciones-Egaralur, S.L., enpresari adjudikatzea, Tolosako "Kondeaneko Aldapa 11n babes ofizialeko 11 etxebizitza eraikitzeko" obrak, hurrengo era honetan adjudikatzea:

\* Prezioa: 732.842,40€ (BEZ)a barne.

\* Exekuzio epea: 11 hilabetekoa izango da.

Aipatu adjudikazioaren oinarri udal teknikariak txostenean jarritako arrazoiak izan dira, hauexek laburbilduta.

El 7 de julio, presenta la documentación referida.

Por todo ello, teniendo en cuenta lo expuesto en la parte expositiva, y de conformidad al artículo 151.4 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

### ACUERDA

**PRIMERO.-** Excluir del procedimiento a la empresa Construcciones Artzamendi, S.A., por presentar la propuesta fuera de plazo.

**SEGUNDO.-** Declarar la validez del acto de licitación y adjudicar a la empresa UTE Construcciones Fco. Aierbe, S.L.- Construcciones-Egaralur, S.L., la ejecución del proyecto de "Construcción de 11 viviendas de protección oficial en kondeaneko Aldapa 11" de Tolosa, en los siguientes términos:

\* Precio: 732.842,40€ (IVA incluido).

\* Plazo de ejecución: 11 meses.

Dicha adjudicación se realiza en base a los motivos argumentados en el informe emitido por la técnico municipal y que se resume del siguiente modo:

PLEGUA	ESKANTZA EKONOMIKOA	EUSKERA	OBRAREN ANALISIA ETA AFEKZIOAK				HOBETUNTZAK	BERMEAK	GUZTIRA
			ATAL NABARMENENAK	ATAL BALDINTZAGARRIAK	TRAFIKOIA	AFEKZIOAK			
			6	6	6,5	6,5			
	60	5					10	5	100,00

LIZITATZALEA		ESKANTZA EKONOMIKOA	EUSKERA	ATAL NABARMENENAK	ATAL BALDINTZAGARRIAK	TRAFIKOIA	AFEKZIOAK	HOBETUNTZAK	BERMEAK	GUZTIRA
1	HUGAR	40,44	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	40,44
2	ALTUNA Y URIA	58,02	5,00	2,00	2,00	2,00	2,00	6,72	5,00	82,74
3	LURGOIEN	60,00	5,00	4,00	4,50	4,25	4,50	8,99	3,75	94,99
4	AERBE-EGARALUR	57,12	5,00	5,75	5,75	6,25	6,25	10,00	5,00	101,12

**HIRUGARRENA.**- Aurkeztu diren lizitatuzaile guztiei adjudikazioa jakinaraztea.

**LAUGARRENA.**- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun eguneko epea jartzea, lizitatuzaileei adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

**BOSGARRENA.**- Kontratuaren formalizazioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean argitaratzea, adjudikatzenetik berrogeita zortzi eguneko epearen barruan.

**TERCERO.**- Notificar la adjudicación a todos los licitadores.

**CUARTO.**- Establecer que el contrato se formalizará dentro de los 15 días hábiles desde la notificación de la adjudicación a los licitadores.

**QUINTO.**- Publicar la formalización del contrato en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el perfil del contratante, dentro del plazo de cuarenta y ocho días, contados desde la fecha de la adjudicación.

#### **6.-22/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **22/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **271.526,76 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **22/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

